

**ANIZTASUN JAIA ERRETERIAN**

Martxoaren 30ean, larunbata, Oarsoaldeko ikastetxe publikoen laguntzari esker aniztasunaren jaia egingo da Koldo Mitxelena eskolako patioan.

Egun horretako jarduerak hauek izango dira:

10:30-11:30 Ipuin kontalaria.

11:30-13:00 Tailerrak: txotxongiloak, panpinak, eskulanak, Afrikako jantzien erakusketa, taloak...

Tailerrek iraun bitartean, trikitilariak jaia girotuko dute.

13:00-13:30 Txalaparta.

13:30-15:00 Hainbat herrialdeko jakien dastaketa.

Anima zaitezte etortzera!

Gure eskolari, taloak egitea egokitu zaio. Honetarako, eskolako familien laguntza eskatzen da. Prest egongo bazina, deitu Guraso Elkarte telefonoa: 665737964

UDALEKUAK

2019ko udarako udalekuen deialdia zabaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 943445980 telefono zenbakian edo www.gipuzkoangazte.eus/udalekuak web orrian informazio gehiago aurki dezakezue.

ETORKINENTZAT SAIOAK

Zuetako batzuek jada parte hartu izan duzue 2015etik Oiartzungo bizilagun berriei 3-4 hilero egin izan diegun HARRERA-SAIOAn. Aukera hau baliatu nahi dugu harrera saioetan egin dugun BERRIKUNTZA NABARMENAREN berri emateko eta PARTE HARTZERA GONBIDATZEKO. Gure ustez, Oiartzuna etortzen den herritar berria saio hauek etortzea bezain GARRANTZITSUA DA, BERTAKO HERRITAR ETA ERAGILEEN PRESENTZIA, harrera askoz naturalagoa baita esperientziak lehen pertsonan kontatuta, beste batek kontatuta baino. Hasierako FORMATUA ALDATU dugu, askoz egoera ludiko eta erosoagoa eskainiz. Oiartzungo Udaleko Euskara eta Gizarte Ongizateko Sailak ABARAXKA ludotekarekin elkarlanean ari gara datorren hilabetean, APIRILAREN 6an saio berri bat antolatzen. Asmoa otordutxo baten inguruan, Oiartzuna etorri berri diren herritarrak eta bertan lehendik bizi garenak elkartzea da. 2018ko abenduan egin genuen formatua aldatzeko bigarren saioa eta EMAITZA BIKAINA izan zen: Urrutitik eta ez hain urrutitik etorritako auzokide berriak, betitik edo aspalditik Oiartzungo herritarrak direnak, haurrak, helduak, gurasoak...

Hurrengo saioan bertako eta urrutiko JAKIAK, JOLASAK eta KANTUAK izango dira protagonista.

Otordutxoa antolatzeko interesgarria iruditu zaigu hainbat partaidek norberak prestatutako zerbait ekartzea: Euskal Herriko eta atzerriko platerak dastatzea da ideia. ZUK ere ekarri dezakezu zure espezialitatea!

Beraz, hurrengo hitzordua hau da:

Eguna: 2019-04-06 (larunbata).

Ordutegia: 16:30

Lekua: Abaraxka Ludoteka, Kontzejupe plaza z/g (Udaletxe atzeko plaza).



makina bat
taupada

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2

errenteria

ERREFUXIATUEN ALDEKO JANARI BILKETA

Oiartzunen, apirila osoan, itsas salbamenduko Aita Maria Zubia itsasontziko kideekin kontzientziazio eta solidaritate hilabetea antolatu dugu. Ondorioz, zenbait ekintza ezberdin burutuko dira herrian: dokumental emanaldiak, hitzaldiak, lasterketa, pintxo tertulia, bazkaria, kontzertuak, etab. Honekin loturik, Zaporeakeko lagunak, 2016ko martxoaz geroztik, Grezian daude, bertan dauden pertsona errefuxiatuentzat janaria prestatzen. Horretarako, janari eta elikagaiak behar dituzte eta apirilak 1etik 12ra gure eskolako atezainaren sarreran kaxak jarriko ditugu hauen bilketa egingo dugu. Errefuxiatuek zure laguntza behar dute! Mila esker.



ELIKAGAI BILKETARAKO BEHARREN ZERRENDA:

1. Pasta (Makarroiak gehienbat)
2. Arroza.
3. Dilistak.
4. Babarrunak.
5. Garbantzuak.
6. Sardinak eta atuna latan.
7. Oliba olioia.
8. Espeziak: Kuminoa, Curry-a, piperrauts zuria, piperrauts beltza.

TAILERRA

Datorren martxoak 30ean, larunbata, arratsaldeko 17:00etan, Udaletxean tailerra antolatu dute. Zaindu zaintzaileak izena du eta dependentzia duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonari zuzenduta dago.



UDALEKU IREKIAK 2019

UZTAILAREN 1ETIK-UZTAILAREN 30ERA

1. HAMABOSTALDIA: UZTAILAK 1-12
2. HAMABOSTALDIA: UZTAILAK 15-30

IZEN-EMATEA

NOIZ? APIRILAK 1-12.

NOLA?

1- ONLINE GALDETEGIA BETEAZ (WWW.GAZTEOIARTZUN.NET)

2- MENDIBURU KALEA 5 BULEGOAN. ASTELEHENETIK-OSTIRALERA 8:30-11:30

ETA 14:30-18:30 (APIRILAREN 12AN GOIZEZ BAKARRIK!)



Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www.elizalde.eus

